

Tokikom enpresak batzar nagusia egin du Aretxabaletako campusean

2012/11/10

Toki komunikabideak bateratzeko enpresa martxoan sortu zen, 20 bazkiderekin, Eskoriatzako HUHEZIn. Ostiraleko bileraren helburu nagusia zen informazioa partekatzea bazkideekin eta gonbidatuekin ordutik hona egindako bidez. Horrezaz gain, batzarrak 10 bazkide gehiagoren hautagaitza onartu zuen.

Honenbestez, Tokikom-ek betea izango luke bere eginkizunik behinekoena: hil honetan bertan eratzekoa den Euskal Hedabideen Elkartean toki komunikabideen bilgunea izatea, horietako 30 hartzen ditu-eta bere baitan.



